



KINU #2 - Maddi Barber

DISTIRAK
Ander Perez

Buztingile erromatar batek hiru hatzekin X bat egiten zuen harlauzaren azalera, buztina lehortu aurretik. Zorionez hatzak ditut nik ere eta airea markatzen dut aztarna hori uzteko buzingile hark egin behar izan zuen keinuaren bila. Segur aski pieza lurrian egongo zen, aurrerantz okertuta eta belauak tolesturik zituela egin zuen X hori; dripping baten tankerara. Tarte batez erromatarra eta airearen buzingilea naiz.

Lansaioi bizi bati aurre egiteko prestatzen dugu gure burua, egunean zehar maitasunez argazki-albumen eta off-eko iruzkinen zulo beltzean sartuko baitzaitu aitona. Maddik kirten kliskagailu bat jarri du, kakodun hortza dirudi. 16mm-ko hogeita hamar metro film, hamalau lagun, kamera bat; bi metro eta erdi pertsonako, hamabi segundo. Bikoteak egin ditugu eta bikote bakoitzeko hogei minutuko filmatzea dagokio. Baldintza gisa, eskuak izango dira ardatz eta hurrengo bikoteari esango diozu zure eszena nola amaitu den; hilotz zoragarri bat, hilotz izan gabe eta zoragarria izan gabe, audioa izan baitzen zoragarria nolabait, eta dena ezin zen. Grabatzeko erabakia zehatza izan behar da, zehaztasuna gauzatu daitekeen zerbait izango balitz bezala edo zeure buruari esatea eta konbentzitzea bezala, grabatzen ari zaren hori dela egiaz grabatu nahi zenuena.

Ezer baino lehen Maddik bideoak erakutsi dizkigu. Gandordun arkumeak belarritakoak nahi ditu eta egitean eskuak altxa ditu esanaz: *STOP, ez ninduten mina jasateko prestatu*. Zigarreta erre du keak pentsatzen lagunduko balio bezala, zorientasunari buruzko gogoeta bat egin eta oparitu behar dizkizun loreetan irudikatu du, polenari diozun alergiaren berri oso ondo duenez; zuk putakeria itxurako estimua jasotzea espero du. Taula da zinez erabakitzen duena eta ez du zugatik ezer erabaki; zuk beste beste afer bat duzu, beraz, egoera konpontzeko, utzi egingo zaitut eta haur bat erosiko dut. Nola eraikiko dugu naratiboa ez den ezer, irudiak erakusten dizkizudan aldioro historia bat ereikitzen badiezu? Goiza igarotakoan, filmazio guztiak kamera barruan ditugu.

Jatordua; alkimiaren garaia da; likidoak nahasiko ditugu; fantasia hutsa da Azkunan droga prestatzen aritzea; barrutik banatzea erabaki dugu, harrapa ez gaitzaten. Ohartarazi gintuzten, telebista dator eta arraroa da. Zer gertatuko den ez jakitearen emozioa dugu eta hori grabatu dute; «dena ongi irtingo da» eta «filma belatzen bada dena pikutara joateko aukera anitzak daude» bi horien arteko zerbait. Likidoak isuri ditugu. Hau sartu da, dena, osorik, barruan da eta tantaka hasi da, tak, zurrutada morea, tak tak, ez grabatu hau zerrikeriak egiten ari baikara. Marruskatzeko garaia da, eta hau omentzeko, lurra more-more egin dugu. Ama mahatsak zapaltzen ageri den bideo bat dauka Emakume handia da, garaiera txikikoa, eta nire aitona argalak baino gehiago pisatzen du.



Oinak mugikorrarekin grabatu ditu mahats beltza zapaltzen duen bitartean eta erleak dabilta inguruan: *Begira, begira, honela, mahatsa zapaldu, begira, erlea, zoaz pikutara, mahatsarekin batera zapalduko zaitut, begira, beste bat, mahats guztiarekin*. Mahats eta erle zukuz betetako edalontzi bat edan du bideoaren amaieran eta kamerarekin egin du topa; esku batekin bere beste eskua grabatu du mugikorrari eusten dion eskuarekin topa eginaz.

Mutikoak
esku batekin
goia seinalatu du
eta bestearekin
tumulu freskoa
eta barre egiten du
aitona
hemen azpian badago
nola egongo da
hor goian

ai, arima

Die Seele (Arima) - ERNST JANDL

Errebelatzeko prozesu osoa egin dugu eta garbiketarako zenbat ur erabiltzen dugu ohartu naiz, hamalauok banaka edo elkarrekin dutxatzeko adina, konfiantza nahikoa ereiki baitugu jada. Filma gordetzen zuen kamera iluna ireki eta irten da, irten da filma. Azkunako komun guztiak itxita daude galarazita baitago pixa egitea -gizakia izatea antihigienikoa da sasoi honetan-, baina giltza batzuk eskuratu ditugu bobina hamar minutuz garbitzeko. Ondoren, eskuen film bat zintzilikatzen dugu eskuak inprobisatutako lehortokian (esan dizuet droga ekoizten ari ginela) eta zain egotea besterik ez da gelditzen. KINUA KULUNKATZEN DUEN ESKUA, zerbeza, jajaja, ´zerbeja´.

Ainara, Maddi eta Usuek filma bildu dute; areto multizine pribatu txiki bat prestatzen ari gara. Filma proiektatzean eskuz eman diogu play audioari, audio/bideo sinkronia antzeko bat egiteko eta etxarteko antzokian murgilduta aurkitzen ditugu gure buruak. Aurkezten dena bezain garrantzitsua da inguruko giroa. Barreak, ozen egindako iruzkinak eta emozioa gure aurpegietan: Errege Magoen kabalgatari begira gauden haurrak gara, goxoak gu noiz joko zain gaude. Pantailara jaurtitako objektu bat edo besteren mira izan nuen. Denok bildu eta behin eta berriro ikusi genuen gure ez-hollywoodtar super-ez-ekoizpena.